

URTEKARIA
barruan
2015
hilez
hile

...eta
Kitto!

2015-XII-29

956 zkia.



Urte

Berri On!



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

ZERBITZUA **G**ESTIOA **A**DMINISTRAZIOA

30 urtetik gorako **esperientziak**
ematen duen
konfiantza

www.euki.com

Tel: 943 200 358



CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTROA

* ERREHABILITAZIOA

- Osakidetza - Aseguruak

* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrequentzia) /

Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK

- Amatasunerako prestakuntza:

Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodini... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.


- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

* MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com



943 366 377 www.dentalaldaz.com


hartz klinika · clínica dental

● San Bartolome, 22 (Elgoibar)

● Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

● Berria: San Francisco, 39 (Tolosa)

"Aldaz Hartz Klinikak
eta bertoko profesional-taldeak
GABON ZORIONTSUAK
opa dizkizue"



**INPLANTEA
+ HORTZA
egun
batean**

**Arazoak
hartz hagin
ordezkoarekin
edo hartz bat
edo besteren
faltarekin?**

SOLUZIO FINKOA:

hartz bat edo gehiago
jartzea metal-zeramikan

SOLUZIO FINKOA:

hartz guztiak metal-zeramikan
jartzea 6 inplanterekin

SOLUZIO MUGIKORRA:

ordezko hartz hagin osoa erretxinan
jartzea 2 inplanterekin guxtienez

2016. urterako prestatzen dihardugu.

Beti ere gure pazienteen ongizateaz arduraturik, hortzetako osasuna inork alde batera utzi ez dezan ahalegintzen gara. Hornitzaileekin dugun harreman zuzenari esker, tratamendu guztietan kalitatea/prezioa doitzen ditugu, datorren urtea guztiontzat errazagoa izan dadin gure aportazioa eginez. Gure paziente guztiei guran jarritako konfidantza eskertu nahi diegu.

2016 zoriontsua.

RPS: 233/13

ESTHER MAESTRE
ODONTOLOGOA

2000570 kolegiatu zkia.





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TFNOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBUURDETZA)

Eskutitzak

Eskutitzak idazteko oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzeza hori gaintzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.eus

Erredakzioa

Hurrengo alea urtarrilaren 15ean zuen buzoietan

Datorren astean ez da alerik izango (besteontzako gabonetako oporrak direnak guk urte berriaren lehen astean hartzen baitugu) eta eskuan duzun Urtekariaren ondorengo hurrengo zenbakia -Kirok!

ttto!- urtarrilaren 15ean jaso ahal izango duzue zuen buzoietan. Barkatu eragozpenak eta, bitartean, ondo amaitu urtea eta hobeto hasi hurrengoak.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KRISTAU.- Erliijo horretakoa. Pertsona esateko ere erabiltzen da. "Ez dirudi kristaua, basoko friztixa baiño".

KRISTAURIK BEZ.- Inor ere ez, jende gutxi. "Andramari egunian kristaurik be ez da geratzen Eibarren".

KRISTONAK.- Sekulakoak, egundokoak. "Galdo-Txiki gizajuak kristonak hartu ei zittuan".

astean esanak

"Badirudi aldarrikatu behar dugula euskaldunak garena baina ez garena gure zilborrari begira, mundu guztia bere zilborrari begira dagoenean. Anitzak garena aldarrikatu behar hori ere! 'Herria' hitza ez esateagatik erabiltzen dugu 'gizartea' askotan, eta gizartea esatearekin ukatzen dugu herri bat dagoela. Zein gizarte da aipatzen dugun hori?"

(OLATZ ZUGAZTI, KONPOSITOREA)

"Hemengo musika munduko dutxan abesteko doinutxotzat daukagu, benetan miresten eta errespetatzen duguna 40 principalesetan promozionatzen diren talde iraultzaile eta intelektualak direlako"

(TXUMA MURUGARREN, ABESLARIA)

"Gaur egun Santa Teresa bere sasoirako aurreratutzat jotzen badugu ere, orain jaioz gero punta-puntako atzeratutzat joko genuke eta, dudarik gabe, baztertu egingo genuke. Uste duzue konbenturik sortuko zituela? Ez gizonaekoendako, ez emakumeentzako"

(JUAN MANUEL DE PRADA, IDAZLEA)

"Euskararen merkatua batez ere asteburuko turismo eta folklore burges hutsera bideratua dago: 'Ui, zeinen politak garen'. Herri aldizkari guztiak ere ez dute horixe bera errepikatu besterik egiten. Inon ez da ageri zinezko literaturarik, bizitzari darion eguneroko minik"

(PATZIKU PERURENA, IDAZLEA)

"Nahiago dut nire seme-alabek belarra erretzeari ematea edaten ikustea baino. Guztiz sinesten dut jendeak gehiago erreko balu, edanari eman beharrean, mundua askoz hobea izango zela"

(SUSAN SARANDON, AKTOREA)

Gabonetako kontzertuak

Sasoi honetan nonahi entzuten diren Gabon kantekin gozatzeko aukerarik ez dugu faltan izan, herriko talde ezberdinak Gabonak direla eta emanaldi bereziak eskaintzen ibili baitira: lehenak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleak izan ziren, hilaren 17an Coliseoan emandako kontzertuarekin. Usartza Txistulari taldeak, berriz, hauteskunde domekako goiz-eguerdia girotu zuen, iaz egindakoaren bidetik herriko auzo ezberdinetan emanaldi laburrak eskainita. Sostoa eta Durangoko Bogoroditsiek, berriz, hurrengo egunean abestu zuten San Andres elizan. Eta Eibarko Koro Gazteak, berriz, kalean abesten hasi eta martitzen iluntzea alaitu zuen.



Sostoa.



Txistulariak.

Koro Gaztea.



9.483 lagunek bisitatu dute Euskal Kostaldeko Geoparkea 2015. urtean. Iazko datuekin konparatuz gero, bisita kopuruak %44 egin du gora. Urtarrilaren 2, 3, 7, 8, 9 eta 10erako irteerak prest daude geoparkea.com helbidean.



Amaña jaietarako girotzen

Gabonak modu berezian girotu nahi izan dituzte Amañako tabernariak, horretarako hainbat ekimen berezi prestatuta. Aurreko egunean ekin zioten egitaruari, auzoko kaleetan trikitalariek egindako kalejirarekin eta eurekin bat egitera animatzen ziren guztiei panderetak oparituta. Datorren egunean (31rako), berriz, umeendako zirko-tailerra eta jolasak eskainiko dituzte Zirika Zirkus-ekoek (elebidun), Amañako pasealeku berrian (Kutxa parean) 17:00etatik 18:30era bitartean; eta jarraian, 19:00etatik 21:00etara Sorkun eta Jon trikitalariak auzoko kaleak girotzen ibiliko dira. Gainera, hilaren 24an egindakoaren bidetik, ekimenarekin bat egin duten tabernetan kaba-kopa eta kiskillak 1'5 eurotan hartzeko aukera izango da. Eta jaiak agurtu aurretik, urtarrilaren 6rako "Bermuteke" jardunaldia antolatu dute, nahi duenak artisau erara egindako bermuta dastatzeko aukera izateko.



Pintto txakurra taula gainean

Urtarrilaren 4an, 17:00etan, "Pintto, Pintto" antzezlanarekin familia giroan primeran pasatzeko aukera izango da Coliseoan, Anita Maravillas-en eskutik (5 euro). Fran Lasuenen jatorrizko musika duen lan honetan "Pintto" txakurraren istorioa kontatuko digute, horretarako txotxongiloak erabilia eta umoreaz baliatuz.

Zeramika Eskolako jaiotza

Portalea eraikinaren sarrera apaintzeko jaiotza urtero aldatzen dute, ez dituzte figurak eta bestelakoak errepikatzen, horiek egiten dituzten artistak etxeokak dira eta: argazkian ikusten dituzuen gazteak Udal Zeramika Eskolako



ikasleak dira eta aurtengo jaiotza eurek egin dute. Aukera izanez gero gerturatu ikustera, ez zaizue damutuko eta!

Asier Serranok irabazi du Irungo Hiria Saria

Asier Serrano musikari eta idazle eibartarrak bigarren aldiz jarraian eskuratu du Irungo Hiria Kutxa Sarien Euskarazko Olerki Saria, 2011n jasotakoaren ondoren. Urte hartakoa izan zen azken edizioa, gero hiru urtetan ez baitira banatu sari horiek. Aurten berreskuratutako ekitaldian, "Ate osteko itzalak" hartu dio erreleboa orduan saritu zuten "Destreratuena Piztiarioa" lanari. Serranoren liburuak apurtutako sentimenduen mina du ardatz eta "gizarte ezkor honi poema positiboago batekin" erantzuten dio.



Sorterrira 89 urteak ospatzera

Argazkian erdian, txamarra marroiarekin ikusten duzuen Ana Mari Arenasek 89 urte bete zituen azaroaren 27an eta lagunekin batera,



Eibarren ospatu nahi izan zuen bere eguna. Jose Irusta Sarasuarekin ezkondua, Hendaian bizi den eibartar honen aita Juanito "Txoko" zenaren arrebarekin ezkondu zen eta Hendaian arma-fabrika eduki zuen. Gerra sasoiari, eibartar asko hartu zituzten etxean, besteak beste Frantziari urte bi errefuxiatuta eman zituzten Julian Etxeberrira eta haren emaztea. Ana Mari euskeraz eta gazteleraz ez ezik, frantsesez eta alemanieraz ere egiten du berba.

autuan



MUGI DAITEZEN HARRIAK

Urtarrilaren 9an Bilbon eta Baionan euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko 17:00etan hasiko diren mobilizazioetarako deialdia egiteko asmoz, beste herri batzuetan bezala Eibarren ere ekitaldi berezia egin zen zapatuan, Eibarko Sarek antolatuta eta, "Baietz Mugitu!" goiburuari jarraituta, 700 kiloko harria mugitzen jardun zuten Untzagan.



Funeraria-Ehoretze
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehorte Taldea</p> 	



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio
9) Psikiatria	Unitatea
10) Neurologia	



*Eskaparate
lehiaketako
irabazleak.*

Ikasle bikainei saria

Eibarko IITUEko hiru ikaslek Kutxaren Gizarte Ekintzak ematen dituen karrera amaierako saria jaso berri dute, 2014-2015 ikasturtean euretako bakoitzak bere titulazioan espediente onena lortu duelako. Saritutako ikasleak Laura Sanz Calle (Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradu-ko titulazioan), Ander San Martin Lasuen (Ingeniaritza Mekanikoko Gradu-koan) eta Ander Ordoño Muri-illo (Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradu-koan) dira eta abenduaren 14an Donostian jaso zituzten sariak eta diplomak, Karrera Amaierako Sari-XXXIX. Edizioko irabazleei saria emateko ekitaldian. Denera 52 ikasle saritu dituzte azken edizio honetan.



Hiru Erregeen kabalgata

Urteroko moduan, Hiru Erregeak urtarrilaren 5ean ailegatuko dira gurera eta, herriko kaleak kabalgatan zeharkatu baino lehen, Ipurua kiroldegian euren omenezko dantzak ikusiko dituzte. Ipurua Dantza Garaikidea eta Gimnasia Erritmika taldeek eta Eibarko Balletekok 16:30ean ekingo diote erakustaldiari,

baina ikustera doazenezat atek 16:00etan zabalduko dituzte (sartzeko gonbidapenak atzo banatu zituzten). Kabalgata, berriz, 19:00etan abiatuko da Untzagatik (Urkizuraino jaitsiko da) eta, Untzagara bueltan, 20:00etatik aurrera ume guztiei harrera egingo diete Mel-txor, Gaspar eta Baltasarrek.



Dendarien sari eta opariak

Eibarko Dendarien Elkarte-ko sari eta opari ugari banatu dituzte Gabonen harira. Aurreko astelehenean eskaparate lehiaketako irabazleek, epai-mahaiak aukeratutako Iñaki Rezola harategiak, Beitu optikak eta Edurne ileapaindegiak eta Facebook bidez boto gehien jaso zuen Ikusimakusi umeen jantzidendak jaso zuten saria (bozketan parte hartu zutenen artean egindako zozketan, saridunak Bautista Cossio Mazon, M^a José Ledo eta Ane Garcandia Garaialde izan dira). Eta hurrengo egunean, berriz, Gabonetako 40 otar oparitu zituzten elkartearen txartelarekin ordaindu duten bezeroen artean.

Artisau Azoka 5era arte zabalik

Zuloagatarren kaleko garaje barruan dagoen Eibarko XII. Artisau Azoka egunero zabalduko dute, urtarrilaren 5era arte, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara (domeketan eta Urte Berri egunean itxita egongo da). Azokan parte hartzen duten artisauetako batzuk egunero zabalduko dute postua eta beste batzuk, berriz, bakarrik egun batzuetan, euren artean txandakatzen joango dira eta. Urtero bezala, azokan era guztietako artisautza erosteko aukera zabala izango da. Bestalde, urtarrilaren 2rako Sushi Eguna prestatu dute, jarduera osagarri modura.





Urteari errepassoa ematen

Kaleratzeak Stop Debabarrena Plataformak prentsaurrekoa eman zuen orain dela egun batzuk, urtean zehar egindakoen berri emateko. Bestek beste, epaitegietan zeuden eta etxe-kaleratzeko arriskua zegoen bost kasutan, oraindik epaitegira ailegatu barik zeuden beste bederatzitan eta alokairuekin zerikusia zuten beste hirutan lagundu dute. Plataformakoak astero, eguenetan 19:00etan bil-tzen dira Portalean eta kontakturako telefonoa 627 93 46 75 da.

Ipuruako gimnastei omenaldia

Eguaztenean Ipurua Gimnasia Erritmika taldekoak omendu zituen udalak, Tania Nagornaiaren neskek egindako denboraldi bikainarengatik. Taldearen lorpenak aitortzeko ekitaldia bideo labur baten proiektioarekin hasi zuten eta, jarraian, Miguel de los Toyos alkateak laguntasuna irudikatzen duen eskultura eman zien, oroigarri gisa.



Kadete mailako boskotea, euren prestatzaileekin eta alkatearekin.



Arratsalde bikaina apaingarriak egiten

2015eko azken "Barixakuak Jolasian" saioa aurreko martitzenean egin zen eta, parte hartu zutenek primerako arratsaldea pasatu zuten familia giroan Gabonetako apaingarriak prestatzen. Arduradunen berbetan, "Gabonetako postalak eta kristalezko elurpoto zoragarriak egin zituzten gure artistek!". Gurasoei zuzendutako mintzapraktika egitasmo hurrengo saioa datorren urtean, urtarrilaren 29an izango da eta, aurreratu digutenez, "aratoesteetarako apaingarriak eta koko-jantziak" prestatuko dituzte.

ASTELEÑA
 150 Ardo - 50 Barran
 Maridajeak / Kazuelitak
 Ehizako haragia
 Plater konbinatuak
 Otartekoak eramateko
GASTROTEKA

Estaziño, 7
 943 20 70 32

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
 943 20 11 38

Ego-Gain, 9
 943 20 32 09

Zorionak
 Urte Berri On

Mariskoak
 Arrain freskoa eta izoztua
 Enkarguak hartzen ditugu
 Ondarruko arraina

Nobedadez betetako urteari agur

Ezohiko ekitaldiz betetako urte amaiera izan da aurtengoa ...eta kitto! Euskara Elkarteko beharginontzat. Hainbat hilabetez beharrean jardun eta gero, abenduaren 17an aurkeztu genituen berritasunez jantzitako www.etakitto.eus webgunea eta hurrengo egunean etxeetara banatu genuen aldizkaria, hainbat aldaketarekin argitara eman genuen 955. alea.

Izan ere, ...eta kitto! Euskara Elkartea 1992. urtean izen bereko aldizkaria kalera-tzeari ekin zionetik hona, gure inguruan gertatzen joan diren hamaika aldaketaren lekuko zuzenak izan gara eta, jakina, urte hauetan guztietan sasoi berrietara molda-tzeko ahaleginari jarraituta, aldizkaria ere aldatzen joan da. Aldaketak aipatuta, teknologia berriek gure bizitzan gero eta toki gehiago hartzen joan direla begibistakoa da eta gaur egun nekez irudikatu dezake-gu ordenagailu, tablet edo mugikorrik ga-beko egunik. Eta Eibarko albisteak euska-raz landu eta eskaintzeko gure betiko as-mo eta zeregin horretan, interneten ego-teak duen garrantziaz ere aspaldi jabetu gi-nen. Horregatik, www.etakitto.eus web-gunea sasoi eta ohitura berrietara egoki-tzeko beharrean jardun dugu luzaroan, ur-teari agur esan baino lehen webgune be-rria zuei aurkeztu ahal izateko.


Webgune berriari egin dizkiogun al-daketei esker, besteak beste, telefo-no mugikor eta tabletetan modu erra-zean nabigatu dezakezue. Gainera zerbitzu eta eduki berriekin hornitu dugu eta, gure herrian gertatzen di-ren albisteak zuei modu azkar eta erosoan helarazteaz gain, Euskara El-karteak berak sortzen dituen albiste, proiektu eta zerbitzu guztien berri ere ematen joango gara, beti ere zuen parte-hartzerako bideak zabaldua: www.etakitto.eus berrituan ...eta kit-to! Euskara Elkartea antolatzen di-tuen jardueretan izena emateko au-keria izango duzue, iradokizunak bida-li ahal izango dira, aurrekontuak es-katu, agenda kontsultatu, elkarteko bazkide egin eta beste hamaika edu-ki berri gehitu dizkiogu eta, nola ez, internet bidez elkartearen proiektu

guztien berri eman-go dizuegu: Berbe-tan, Bertsolaritza, Illunabarrian, Harixa Emoten, Txikitto!, Euskararen Trans-misioari Buruzko Mintegia...
 Horiekin guztie-kin batera, askoren-tzat bereziki erakar-garria izango den

mediateka erantsi diogu webguneari, ar-gazki-bildumak zein bideoak zuekin parte-katzeko. Eta nahi izanez gero webgunean sartzen ditugun guztiak sare sozialetan ja-rraitzeko aukera ere baduzue, www.etakitto.eus aldizkariaren Facebook orriarekin (www.facebook.com/etakittoaldizkaria) zein Twitter kontuarekin (@etakitto) zuzen-ean lotuta dago eta. Baina webgunea ezagutzeko modurik onena bertara sartzea da, beraz animatu eta egin klik www.etakitto.eus berrian!



Abenduaren 17an aurkeztu ziren web orri berria eta astekariaren diseinua.
SILBIA HERNANDEZ





● tartak
 ● enkarguak
 etxera

Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

Isasi, 31 Egunero 06.00 etatik aurrera

943 207 737

Gozatu jai hauetan
 EIBARKO PREZIORIK
 ONENEKIN!

URTE BERRI
 ON!!!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTINDO



Aitor Fernandez de Pinedo (Hezkuntza Plataformaen Topaguneko kidea): "LOMCEK ez du gure errealitatea aintzat hartzen eta zentralizazioaz eta doktrinamenduaz baliatzen da 40 urteko atzerakada bultzatzeko"



Jaione Yeregi (Itxesi belardenda): "Orekatu eta osasuntsu jaten badugu, ez dugu dietarik egin beharko. Gibela da gure gorputzeko filtroa. Gorputza garbitzeko aukera zabala dago tratamenduetan"



Maite Urbietta (erizaina): "Adin batetik aurrera erorketak normalizat jotzen dute, baina hori ez da horrela. Nik esango nuke etxean kalean baino gehiago erortzen dela adineko jendea"

Urteari errepassoa

Eibartar askok ekin zetsen urtiari **Urkorra igota**. Egun batzuk geruago, hillaik 5ian **Hiru Erregiak kabalगतan** ziherkatu zittuen gure herriko kaliak, baiña horren aurretik Meltxor, Gaspar eta Baltasar kiroldexigan egon ziran umien dantzak ikusten. Behekaldeko alkarte gastronomikuak osatzen dabean Auzokoak alkartekuak be, urteroko moduan, **bazkari edarra** preparau zetsen **Gureak taillarrekueri**. Eta urteroko kontuekin jarraituta, **San Sebastian eguna** geurian be ospatu genduan, Coliseo antzokixan egindako Danborradako kontzertuarekin. Eta, horrekin batera, azken urtitan egindakuari jarraituta, Ustekabe fanfarreko musikuak Donostian egon ziran hango danborradan jotzen. **Lagun Taldekuak** be, urteroko moduan, euren dantza ikuskizuna eskindu eben, birritan, Unibersidade Laboraleko aretuan. Hillaren 18xan Eibarko Armagintzaren Museua Portalean zabaldu ebela zortzi urte bete ziran eta, horren aitzakixarekin, **Guraso Berbalagunak** bisitan jua ziran. Beste askoren moduan, **...eta kitto!-ren webguniak .eus domeiñua estrenau barri** hasi eban urtia. Eibar Sahara Elkartekuak **11. Saharraren aldeko Euskal Karabanarako** elikagaixak batzen ibilli ziran. Baiña, zoritxarrez, urteko lehen hilliak albiste txarrik be laga zeskun: **barianteko tuneletako** batian trafiko **istripu larrixa** gertatu zan, Hezkuntza Esparruan bizi ziran hiru gazteren automobillak kamioi batekin talka egin eta gero euretako bi han bertan hil ziran eta.



Eibarko Kirol Sarien 20. edizioa egin zen Coliseoan urte zaharrari agur esateko. Ia 30 sari banatu ziren herriko kirolari eta klubuen artean.



Eibar-Sahara elkarteak martxan jarritako produktuak batzeko kanpaina arrakastatsua izan zen.



Hezkuntza Esparruan bizi ziren IMH-ko bi ikaslek galdu zuten bizia saihesbideko istripuan.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 2016 69**





Bea Martxueta (LABeko politika sozialetako idazkaria): "Karta Sozialean zerrenda luzea dago: parte-hartzea, justizia soziala, berdintasuna, naturarekiko errespetua, iraunkortasun orekatua..."



Miren Torrealday (irulea): "Orain ez horrenbeste urte baserrietan iruten zen, egin beharreko beste etxeko lan bat gehiago zen. Egia da galdutako lanbidea dela, baina oraindik geratzen dira irule batzuk"



Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi): "Deserriaren inguruko lan kontzeptuala egin dut. Arrazoi politikoetaz gain, arrazoi sozialak ere badaude: hor daude garai gordin hauetan bere herrian bazterketa soziala bizi dutenak..."

Hillia neguko jaixak ospatzen hasi genduan: Kezka Dantza Taldiaren eskutik hillaren 7xan koko-dantzen konparsak Otaola-Kiñarrako basarrietan egin eban urteroko **koko-eskea** eta, handik bajauta, herriko kalietan ibilli ziran koko-dantzariak eta kokomarruak, egun batzuk geruago ailegatu ziran **Aratostietarako** girua berotzen. Gurian ohiturak agintzen daberen moduan, **San Blas egunian** herriko opillak bedeinkatu zittuen askok. Eta gure eztarixen zaindarixari eskindutako egunaren harira, Arrate Kultur Elkartekuak **opillak egitteko ikastarua eta lehiaketia** antolatu zittuen. Beste martiri bat, Santa Ageda goguan, **santa-eskian** urten eben talde diferentiak. Ixa 31 millioi euroko **udal aurrekontua** onartzeko plenua hillaren 16xan egin zan. Handik lau egunera, 20xan abiatu ziran **38. Eibarko Antzerki Jardunaldixak**. Eibar kirol alkartiak foballaz haratago jua-teko bokaziñuarekin sortutako proiektua, **Ipuruia Taillarra** izenekua presentau eban Armerixa Eskolan. Eta ikasgeletatik kanpora, Lanbide Heziketako 700 ikasle baiño gehixago alkartu ziran Untzagan, laugarrenez egindako **Ikasne-presa azokan**. Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatuta **neguko beherapenen azokia** egin zan. Cielito Musika Bandakuen VI. **Udaberri Kontzertuarekin** ekin zetsen denboraldixari Txirindulari Elkartekuak. ...eta kitto!-k, bestalde **Euskaraz Primeran!** kanpaiña jarri zeban martxan, herriko taberna eta dendetan euskerairen erabilleria bultzatzeko. Eta hillaren hasieran ekin zetsan bidari **Gerra Zibillari eskindutako interpretaziño zentruak**, Arraten. Toribio Etxebarria sarixen **25. ediziñua** be febreruan presentau eben.



Koko-dantzariak merkatu plazan bildu ziren baserrietara jo aurretik. Eurekin hasi ziren aurtengo Aratosteak gure herrian.



Urteroko moduan, sanblasak bedeinkatu zituzten gure herriko hainbat parroketan.



Euskaraz Primeran! barruan egindako I. Gilda-lehiaketan 27 tabernak hartu zuten parte.

IÑAKI REZOLA
HARATEGIA

Urte Berri On!!

Errebal, 23 - Tel. 943 201 729

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko
ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)



Alberto Ortiz de Zarate (aditua Gobernu irekiaren alorrean): "Internet eta teknologia berriei esker, informazioa gure gizarteko aktiborik balioetsuena bihurtu da. Aprobetxatu dezagun"

Luz Maceira (ikertzailea): "Emakumeen Aztarnak Eibarko Industrializazio-prozesuan proiektuaren oinarria parte-hartzea da eta horretarako egiten ditugu bilerak hileroko"

Joxerra Gomez (Biztuko presidentea): "Guztira, 3.000 bazkide daude Eibarko lau jubilatuetan: 1.400 Untzaga jubilatuetan, 600 Ipuruan, 400 Urkin eta 600 Urkizun"



Martxoaren 23an, arratsaldean, pasatu zen 19. Korrika Eibartik. 37 eskutik pasatu zen lekukoa gure herritik egindako zortzi kilometroetan.



Martxoaren 8an emakumeen elkarteek eta udal ordezkariak bat egin zuten, "Feminista naiz" goiburuari jarraituta, photocall-a egiteko.

Martxuaren 1ian hasi ziran **Lurralde-busen zerbitzu barrixak** eskintzen. **UEU udaberrirako ikastaruen** eskintza presentau eben Markeskua jauregixan. Kultur eskintza biribiltzeko, urtero lez **bertsuak** protagonista izan ziran **Arrate Kultur Elkarte**an. Eta alkarte berak Emakumearen Nazioarteko Egurenaren harira antolatuta **II. Lan Artistikoaren Lehiaketia** eta presentau zittuenen erakusketia egin ziran Topalekuan. Eta lehiaketa bittartez aukeratu eben baita **alkartiarendako logotipo barri**xa be, Nestor Perez Valenciagak egin dakua. Horrekin batera, udalak eta Eibarko Emakumeen Mahaixak **#feministanaiz** goiburuari jarraitutako programia preparau eben. Aurreko urtean talde diferentia landutako **Eskubide Sozialen Kartia** papeletik errealidadera salto emon bihar zala eskatzeko manifestaziñuak egin ziran Bilbo eta Iruñean eta horren gaiñeko azalpenak emotera etorri ziran. **Gure Esku Dago** herri-ekimenak, bestalde, "Jostunak. Herritarren borondateak jositako istorio bat" **dokumentala** presentau eban. **Aldatzen-eko boluntario gaztiak** Alboan GKE-iak antolatutako Gazte Sarearen II. Topaketan parte hartu eben. Beste gazte batzuk, **piano ikasliak**, atzera be Coliseuan kontzertua emon eben, aurten 10 urte bete dittuan Andoingo lehiaketara jua aurretik. Hillaren 23an ailegau zan gurera **Korrika 19xa**. Eta **Kokein** taldiak Ez Dok tabernan eurak ezer jakin barik preparau zetsen jaixan ospatu zittuan **15 urtiak**. Martxuan hil zan azken 20 urtiotan Gasteizen bizi izan zan **Lino Mondragon** Eibarko kazetarixa, 65 urterekin.

Larragest



F. Calbeton, 22-24

INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795



Maite Lorenzo (Itzamna poesia tailerra):

"Proiektua poesia kalera ateratzeko ilusiotik jaiu zen. Poesiak bere lengoia du: dena errespetu klabe moduko baten barruan kokatzen da"



Imanol Elorza (artista): "Beti izan dut gauza berriak asmatzeko gogoia, eta Brasilen bizitzen egon ginen hiru urteetan, indijenek egiten zituzten tallak ezagutu ondoren, oleo-erliebeak egitea pentsatu nuen"



Mariano Luke (Deportiboko Kultura Batzordea): "Historiari behar duen tokia egiteko kaleratu ditugu liburua eta dokumentala. Euskal kultura bizirik dago: gure ekarpena izan da 50 urte hauetan horren biziraupenean laguntzea"

Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gogoratu eben talde diferentiak, bakoitzak beran aldetik. Aste Santua baiño lehen egin zan **Armerixa Eskolako Ikasle Ohien** Alkartekuen Batzar Nagusixa. Sanjuanetako danborrada bixetarako ensaiatzen hasi ziran, umiak lehelengo eta jarraixan nagusixak. Kulturalak antolatzen dabene **Eguen Zuri argazki lehiaketako** sari-xak banatziarekin batera erakusketia inaugurau eben Topalekuan. **Liburuaren Eguna** ospatu eben liburutegixan eta aurten be **Deparkel Parkinson alkartari laguntzeko** pintxo-pote berezixa egin zan Untzagan. **Nagusixen XXII. Hamabostaldixa** apirillaren 13tik 24ra bittartian egin zan. Gaztiak be euki eben hitzordu berezirik, Deban lehen aldiz egindako **Gaztelekuen arteko topaketiak** oso harrera ona euki eban eta. "Emakumeen Aztarnak Eibarko Industrializazio-prozesuan" proiektuaren barri emon zeskuen hillian behin Untzagako jubilatut egiten dabene **Urkizuko iturririxan** ipiñittako kartelak ura edateko ona zan ala ez eban oso garbi azaltzen askorendako. **Mankomunidiak "Helburua: 60"** kanpaiñiarekin 2016rako gaikako bilketia %60ra aillegatzeko asmua agertu eban. 16 urtian ziñegotzi izan zan **Carmen Larrañagak jubilatzen zala** esan eta jarraixan presentau eban maiatzerako PP-ko alkategaixa, Javier Nuñez eibartarra. Guardia Zibillaren kuartela desagertzia eskatzeko **Ospa Hemendik Eguna** antolatu eben hillaren 11rako. Eta 16xa Gure Esku Dago-ren ekime-nez **Joste Eguna** izan zan.



Bigarren Errepublika gogoan izan zuten beste behin apirilaren 14an. Sozialistek txapliguak bota zituzten Txaltxa-Zelaitik.



Nagusien Hamabostaldiak bi asteke egitaraua antolatu zuen aurten ere.



Valenciaga Memoriale afizionatuen mailako estatuko proba garrantzitsuena da.

altzariak,
koltxoiak
sukaldeak

Karlos

Ibarkurutze, 5
943 20 37 15

TXOKO
TXOKO

*Giro alaia
Gabon Zaharrear!*

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR



Maite Maiora (korrikalaria):
"5 aldiz egin dut Zegama-Aizkorri proba. Munduko onenekin jardunda, zeuri buruari neurria hartu behar diozu proba horretan. Mendizalea ere banaiz eta hortik jarraituko dut"

Jokin Basurto (txirrindularia):
"Irteten naizen bakoitzean pila bat disfrutatzen dut. Asko gustatzen zait betiko lagunekin irteea, baina bakarrik noanean ere primeran pasatzen dut"

Mª Jesus Agirregomezkorta (Hitzez): "Baserritik bizimodua ateratzea oso zaila da. Primerako produktuak ateratzen ditugu baina horiek merkaturatzeko laguntza gutxi ematen digute"

Hillaren lehelenguaren harira mobili-zaziñuak antolatu zittuen sindikatuak. Udabarrixarekin batera jaixak darian zabaltzen hasi ziran: **Santa Kurutz, San Isidro, Abontza eta Galiziako Etxekuen jaixak** ospatu genduazen maiatzian, bestiak beste. Klub Deportibokuak be euki eben zer ospatu, **Euskal Jaixak 50 urte** bete zittuan eta; urteroko ekitaldixekin batera, mende erdixari erreparasua emoten de-tsan liburua kaleratu eben. Eta Deporreko Argazki Taldekuak programa bete-betia preparau eben **Argazkilaritza Maiatzean-en** barruan. **Eskolarteko Antzerki erakustaldixak** 31 urte bete zittuan eta, antzerkixarekin jarraituta, **Juan Ortegarari sarixa** emon zetsen Leioako Umore Azokan. Hillaren 18xan **Museuen Eguna** ospatu zan eta **Gu-reak taldiak** aurten **40 urte** betetzen zittuala eta, erakusketa berezixa be antolatu eben. Atzegiko neska-mutillak primeran pasau eben **Txolarte Egunian**. **Plazatik Gaztetxera XVI**. Bertsolari Gazteen Txapelketako kanporaketia jokatu zan 15ian eta herriko ikasliak be jardun eben bertsotan, Coliseoko jaialdixetan. Eta **Eskolako Agenda 21**eko plenuan elikadura jasangarri eta osasuntsuari lotuta landutakuak azaldu zittuen programan parte hartu eben ikasliak. **Indianokua gaztelekuak** 4. urtemuga ospatu eban. Zer ospatu ez zan egon **Nepalen, lurrikara** batek hondamendixa baiño ez zetselako laga eta hara bidaltzeko laguntasuna batzen jardun eben hamen bizi diran nepaldarrak. Maiatzaren 24an **Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundiak**, urteko lehelenguak egin ziran eta udalian sozialistak nagusitu ziran atzera be, 10 ziñegotzirekin.



Euskararen Transmisioa Mintegiaren bosgarren edizioa egin zuten Portalean, euskararen gaur egungo egoera eta etorkizuna mintzagai.



Gureak enpresak lau hamarkada bete ditu bertako beharginen gaitasunekin aurrera egiten.



Euskal Jaiak 50 urte egin zituen maiatzaren azken asteburuan, ekitaldi bereziekin jantzita.

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea
Giokela

MUGIKATZA Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

URTE BERRI ON!



Josu Mujika (koreografoa):
 "Txikitán hasi arren, 18 bat urterekin lortzen da dantzarako gaitasuna, orduan disfrutatzen dute gehien".



Xabi Solano (Esne Beltza):
 "Egia da azken urteetan ikasi ere ikasi dugula... baina inork ezin du esan ez garela beti Esne Beltza izan. Hori da gure ezaugarri nagusia!"



Ana Mari Alberdi (Ikasten elkarteko presidentea):
 "Oso garrantzitsua da burua bizirik mantentzea. Ikasteaz gain, besteei ere erakusten diegu eta harreman pertsonalak asko lantzen dira"

Udarekin batera **jaixak** gero eta gehiago ugaritzen segidu eben: **Urkikuak** izan ziran lehenak, baiña jarraixan ailegatu jakuzen **sanjuanak**, **Rugbi taldekuen Garagardo Jaixa**, **sanpedruak**, Kezkako ikasliak kurtso amaieran egiten dabena **Dantzari Eguna**... Eta jai giruan egin ziran **Gure Esku Dago**-k deitutako ekitaldi nagusixak hiriburuetan. Hillaren 6xan zabaldu eben **kanpoko igerilekua**. Aurtengo udan egindako beruaren eraginez, ixa 45.000 lagunek, sekula baiño gehiagok erabili ebela emon eben aditzera denboraldixaren amaieran. Eta igerilekua zabaldu eben egunian egin eben ikasturteko azken kantu-kalejira **Kaleetan Kantuz abesbatzak** eta **Musika Eskolako trikitalarixak**, oportetan jua baiño lehen. Urtietan itxita egon eta gero, **Arrateko Aterpetxia** atzera be zabaldu eben ATERI Egoitzak eta Aterpetxeak Sarekuak, holan neguan inauguratutako Gerraren Interpretaziño Zentruaren eskintza biribilduta. Eta udako gabetan giro edarra egoten dala eta, **poesiari eskindutako gaba berezixa** antolatu eben Itzamna akademixako antzerki taillarrian diharduenak, lbarkurutzen olerkixak irakorri eta musikia eskinduta. CodeSyntax enpresakuak urtebete lehenago etaratako **Tribual jokua**ren **bersiño barrixa** emon eben eza gutzera; jokuari egindako hobekuntzen artian, tribialen itxuria dakan jokua eleanitza bihurtu eben. Bestelako albisterik be laga zeskun ekaiñak: EAJ-kuak Batzokiko **lehixuetako bation zeken** ikurriña lapurtu zetsela salatu eben.



Lizarrao Dultzaineroekin Estaziñotik Untzagaraino etorri eta gero hasi ziren Sanjuanak udaletxeo balkoitik botatako pregoiarekin.



Urkiko jaiak auzo guztia piztu zuen beste behin eta baita parte hartzera animatu ere.



Esperientzia Eskolakoak kurtso amaieran, ikasitako hainbat baliabide praktikan jartzen.

MUGICA
 ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
 GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
 PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
 ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
 ZORU ERRADIATZAILEA
 EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Radio Eibar
 CADENA
SER
 104,0 FM

Izadi
 LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Javier Garcia "Ara" (tatuatzailea): "Niri erreialismo handiko marrazkiak gustatzen zaizkit. Tribalak, ahal dela, ez ditut egiten. Ez nuke marraztuko ideologia politiko batzuekin lotutako lema edo sinbolorik"

Leire Barriuso (Euskal kostaldeko Geoparkea): "Geoparkea Deba, Zumaia eta Mutriku osatzen dute. Oso geologia berezia eta garrantzitsua daukagu. Mundu mailako ikertzaileek urteak daramatzate gure geologia ikertzen"

Kepa Gonzalez (argazkilaria): Deportiboko Ikusentzunezkoen Astean azken hamar urteotako nire lana bilduko duen proiektioa izango da, kubridu ditudan esparru sozial, kultural eta ideologikoak erakutsiko dituen"

Amañako jaixak aurten ezusteko albistiarekin hasi zittuen, **SGAE-k antolatzailleri 18.666 euro pagatzeko eskeria** ixa txupinazuarekin batera ailegau jakuen eta; **Sankristobalگو jaixetan** Manu Fernandez auzokidia gogoratu eben; eta **Lambretta motorren konzentraziñuan** 80 bat motor alkartu ziran. **Euskal Herriko Gazte Orkestrako** 74 musikari, tartian Andrea Berbois eibartarra, Hezkuntza Esparruan preparau zittuen udarako kontzertuak. **UEU-k 43. udako ikastaruak** presentau zittuan Markeskuan. Eta uztaila amaieran aurkeztu eben **udalaren web orri barrixa**. **Dantzaz** konpainiak "4Milpasos" ikuski-zuna estrenau eban Coliseoan eta **The Vartools** taldiak, barriz, "Electrified" bere lehen diskua emon eban argittara. San Andres elizako klaustruan egitten dan **Ikus-entzunezkuen Asteak** 25. ediziñua bete eban. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eskutik **udako merkealdi berezixa** egin zan. **Geoparkeak** bere urte-era-eskintza zabaldu eban. Eta **uda solidarixua** euki eben hainbatek: Nerea Olano Perura jua zan Medicus Mundi-rekin eta Txernobilgo ume bi eta Saharako beste hiru Eibarko famelixetan hartu zittuen. Izendapen barri mordua be egin ziran: **Roberto Larrañaga** Confebaskeko presidente izendatu eben; **Mª Jose Telleria**, Kulturako foru zuzendari; **Eva Juez** jeltzaliak legebiltzarkide kargua hartu eban; **Arcadio Benitez** Mankomunitateko presidente eta Alberto Albistegi diruzain aukeratu zittuen; Iker Laka eta Ivan Iriondo EGI-ko lurralde kontseilluko kide izatera pasau ziran; eta **Eneko Andueza** Batzar Nagusixetan Euskal Sozialistak taldeko bozeramaille izendatu eben.




Sostoakoek bota zuten txupinazoa Amañako jaietan. Ondoren, kalejiran jardun zuten euren abestiak kantatuz auzotik.



San Kristobaleko jaiak Otarra elkartean aurkeztu zituzten.



Uda pasatzera gurera etorritako Saharako umeei ongiatorria egin zitzaizen udaletxean.



Zorionak eta Urte Berri On gure bezero guztiei

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
 egolan.eibar@gmail.com

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C



EIBARKO KIROL SARIEN XXI. edizioa

Datorren eguenean, abenduaren 31n, *...eta kitto!* astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere zita izango du Eibarko kirol munduarekin. Hogeitabatgarrena izango da.

Coliseoan, eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 26 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia ere izango dira.

Guztira, beraz, 29. Lerro hauetatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

SARI BEREZIA



Tania Nagornaia

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

ARETO-FOBALLA



Jonathan Redondo

Debarrena Areto-Foballa

ARKU TIRAKETA



Juan Arizmendiarieta

Urko Arkulariak Kluba

ATLETISMOA



Tomas Vouilloz

Eibarko Klub Deportiboa

AUTOMOBILISMOA



Ruben Gonzalez

Escuderia Eibar

ERRUGBIA



Nahia Fernandez

Eibar Rugbi Taldea

ESKIA



Amaia Garate

Eibarko Klub Deportiboa

ESKUBALOIA



Jose Alberto Lazaro

Eibar Eskubaloia

FOBALLA



Nesken Lehen Taldea

Eibar Kirol Elkartea

GIMNASIA ERRITMIKOA



Kadete Oinarri Taldea

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

GOLFA



Sergio Ipiña

Eibar Golf Pitch & Putt

HERRI KIROLAK



Jose Fran Arrillaga

Eibarko Euskal Jokoak

HIRU TXIRLO



Sergio Rodriguez

Asola Berri

abenduak 31, eguena, 12.00etan, COLISEOAN

IGERIKETA



Ander Izagirre

Urbat-Urkotrik

JUDO



Xabier Arnaiz

Judo Kalamua

KARATEA



Jesus Castillo

Urki-Amaña

MENDIA



Julian Olabe

Eibarko Klub Deportiboa

PILOTA



Josu Zubizarreta

Eibarko Klub Deportiboa

SASKIBALOA



Aser Larreategi

Katu Kale

SILBESTRISMOA



Iñigo Perez

Eibarko Txori Lagunak

SQUASH



Miguel Cabanillas

Eibarko Klub Deportiboa

TIRO OLINPIKOA



Jose Angel Solas

Club Tiro Dinbi-Danba

TRIATLOIA



Eduardo Oiartzun

Delteco Eibar Triatloi Taldea

TXIRRINDULARITZA



Imanol Mtnez / P. Zabala

Debarrena

WATERPOLOA



Urbateko emakumeak

Urbat-Urkotrik

WU-SHU



Jesus Mª Guzman

Ttatt Gimnasioa

XAKEA



Asier Etxagibel


Eibarko Klub Deportiboa

EUSKERA SARIA



Eibar Eskubaloia

SUSTAPENA



Azitain Erretegia



Ane Urkiola (zinemagilea): "Guztiaren muina kontaktatu nahi duzuna da. Hortik hasten zara pertsonaia garatzen, argia aukeratzen, argazkia, soinua, jantziak..."



Jon Etxezarraga (Intxorta 1937): "Aranzadiren prospekzioetan parte hartzen dugu, gero gorputzak lurpetik ateratzeko. 1936koaren inguruko batailak birsortzeko taldea ere osatu dugu"



Leticia Martinez-Alcocer (Isiltasuna Hautsiz): "Indarkeria sexuala oraindik tabu da. Askotan biolentzia mota hori sufritzen duen neska edo andrea errudun sentitzen da, eta erasoia sufritu izanak lotsa eragin diezaiolke".

Gogo gixirekin udako oporreri agur esateko ordua aillegau jakon jende gehixenari, baiña etxerako bueltia pixka bat samurtzeko edo, iraila hasi orduko **Arrateko jaixak** ospatu genduazen. Aurten eguraldixa lagun euki genduan eta, horrekin animauta, jende asko batu zan Arraten. ...eta kitto!-ren kitton-boliak ehundaka sari banatu zittuan. lazkuari jarraituta, aurten be **Eibarko garixakin** egindako ogixa saldu eben Sosola basarrikuak Arrate egunian. Eta Arrateko Amaren eguna pasauta be, jaixak ospatzeko aukera barrixak agertzen juan ziran: **Arrate izenekuen jaixa, Kofradixa eta Basarritar jubilauren eguna, Barrena, Legarre eta Wenzeslao Orbea kalietako jaixak, Agiñagako Sanmiguelak eta Kantabriako Etxekuak antolatzen dittuen Bien Aparecida amabirjiñaren omenezkuak**, kalendari xuan bata bestiaren atzetik etorri ziran. **Eibarren bizi diran mexikarrak** euren herrialdian irailaren 16xan ospatzen daben Mexikoko Independentzia Egunaren harira bazkarixa egin eben. Eta konturau orduko, ikaslieri be eskolara bueltatzeko ordua aillegau jakuen. Aurten **5.000 bat ikaslek ekin zetsen ikasturte barrixari** gure herriko ikastetxietan. Eta eskoletan ez eze, ikasturte barrixari ekin zetsen beste toki batzuetan be: **Coliseo antzokirako eskintzaren** barruan, abendura bittartian 33 ikuskizun programauta eguazela aditzera emon eben. Ikasturte barrixari ekin zetsen baitta be **Portaleko erakusketa** aretuan, Topalekuan eta hilleroako argazki erakusketak hartzen dittuen herriko tabernetan, udal eskoletan, herriko akademixetan...



Arrateko jaietako ohiko prozesioei heldu zitzaizkien aurten ere. Argazkian, gurutze bidean txistulariak lagunduta.



Arrateko Interpretazio Zentruarendako lehen uda izan da aurtengoa.



Lambrettari buruzko liburua kaleratu da aurten.



Super BM IFA taldea,
 zure eguneroko erosketa



Julian Etxeberria, 14-16


Tel. 943 70 15 90



JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194
 FAXA. 943 820 006

Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com



Koldo Izagirre (idazlea):
 "Gaztetxoak eta eskolak erosle potentzial handienak dira, eta liburu asko idazten da multzo horretarako. Gehiegi ere bai. Hori bai, gorabehera handiak daude kalitatean, zoritzarrez"



Ainhoa Amorrosta (ELA elkartekoa): "ELA gaixotasunak urte mordoak daramatza gure artean eta gero eta jende gehiago harrapatzen du. Inbestigazioa, ordea, geldoago doa"



Antonio Cancelo (Gure Balioak 2015 Saria): "Krisia oso gogorra izan da eta bere eraginak ez du enpresa formulen artean bereizketarik egiten, kooperatibei ere merkatuan daukaten posizionamenduaren arabera eraginez"



Sagardo Egunak eguraldia izan zuen lagun beste behin eta askok egin zuten txotx goiz eta arratsalde, botila guztiekin amaitzeko.



Radio Eibarrek 25 urte bete zituen.



Jubilauak kalera irten ziren euren eskubideen alde.

Urriko lehen egunian gogoratzen dan **Nagusixen Egunian** jubilauak alkar-taratzia egin eben, pensio duiñak eskatzeko. Eta urrixan hasi ziran **Eibar-Barajas autobus zerbitzua** eskintzen eta handik egun batzuetara Leioako campusera autobusian jua-etortzeko zerbitzu zuzena berreskuratu zan. **Energixa Barriztagarrixen Ingeniari-tzako lehen promozioña** graduatu zan eta **UEUren Udazkeneko Ikastaruak** presentau zittuen. **Sagardo Egunian** 2.000 litro sagardo baiño gehixago edan ziran eta Egoaizia eta Alboan-ek, Aldatzenekin alkarlanian bigarrenez antolatutako **bazkari solidarixuan** atzera be jende morduak hartu eban parte. Urteroko moduan, **Liburu eta Disko Azokia** egin zan eta Deporreko mendi taldekuak antolatutako **XVII. Jardunaldi Mikologikuetan** 155 espezie ezbar-din batu eta erakutsi zittuen. **Debaba-rreneko IV. Aste Ekologikua** hartu eban Urkizuko parkiak eta **Indalezio Ojanguren lehiaketako** sari nagusixa Oskar Gaskon Marañoek eskuratu eban. Molto Vivace taldiak zabaldu eban **XXIII. Musikaldixa** eta **Gipuzko-ako odol-emotailien alkartiak** 16 eibartar omendu zittuan. **Atzegiren** aur-tengo **kanpaiño** protagonistetako bat Lucia Juarez Simon eibartarra izan zan eta **Gripiaren kontrako txertake-ta kanpaiño** be urrixan abiatu zan. **IV. Euskal Herriko Mundu Martxarekin** bat egin eben gure herriko andrak. Ur-temuga berezixak ospatu zittuen **Radio Eibarrek** (25 urte), **Valle tabernak** (100 urte) eta **Orbea lantegixak** (175 urte). Eurixak larrialdi egoeria eragin eban Sa-harako kanpamenduetan. Eta urriko az-ken zapatuan inaugurau zittuen **Ama-ño** tren geltokixa eta pasialekua.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
 ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net



UNBE TABERNA
 ✖ Pintxoak
 ✖ Bokatak
 ✖ Bazkariak

Balle Otaola 33 ☎: 943 70 00 81

EGUNEROKO MENUA



Bixente Ramirez: "Gure helburua jendeari agur baikorra eskaintzea izan da, gureganako izan duen maitasun hori eskertzea. Horregatik, orain arte egindako kontzertu guztietan giro alai eta emotiboa bizi izan dugu"



Idoia Arraiza (Bilgune feminista): "Eraso sexistak emakume izateagatik jasaten ditugun ekintza diskriminatzaileak dira, baina baita feminitate eta maskulinitate eredu hegemonikoetatik ateratzen diren gorputzek jasaten dituztenak ere"



Iñigo Unzeta (soroslea): "Errefuxiatuak lurrera iristen direnean Gurutze Gorriak eta antzerako erakundeek lagundu diezaiekete, baina uretan behar duten esku hori guk eskainiko diegu"

Domusantu Egunaren inguruko jaixak ospatu genduzen: As Burgas Galizia-ko Etxiak **Magosto eta Enpanada Jai-xa** egin eben Urkizun eta handik egun gitxira AEK euskaltegikuekin batera **Gaztañerre** ospatzen ibilli ziran eibartar asko, tabernarik taberna kalejiran eta kantuan. Plano Corto alkartiak **Asier Errasti ikus-entzunezkuen jaialdixa** antolatu eban. Eta **Munduko Paisaiak-Liburutegiak** Topaleku programiak Kulturantzitasuna gerturatu zeskun. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren moziñua onartziarekin batera, **Eibar Etxegabetzerik Gabeko Udalerri** izendatu eban. Inmigraziñuarekin kezkatutako hainbatek **Eibarko Errefuxiatuen aldeko Kontseillua** eratu eban. Titirijai jaialdixak atzera be txotxongilluekin gozatzeko aukeria eskindu zeskun. Urteroko moduan, musikuak **Santa Zezilia** ospatzeko emanaldi berezixak eskindu zittuen eta, horrekin batera, **Ustekabe fanfarriaren 15 urtiak** ospatzeko, 12 fanfarretako 180 musiko alkartu zittuen. Hainbat eibartarren izenak gogoratzeko hillia be izan zan: **Narbaiza Fondoaren** dohartzari esker Museuak gure herriko taillarretan egindako 2.000 pieza jaso zittuan; **Enrike Zuazua** matematikua Europako Akademiako kide izendatu eban; aurtengo Gure Baloiak sarixa **Antonio Cancelok** jaso eban; eta **Javier Gorosabel** izena ipiñi zetsen Mexikoko San Pedro Obserbatorixoko teleskopixo barrixari. Azaruaren 25aren inguruan, indarkerixa matxistazko ekitaldi ugari egin ziran eta lehen aldiz antolatutako **"Women In Black" performancean** 80 andrak hartu eban parte. Aurrekuetan bezala, **Eibar Beldur Barik** sarixak banatu ziran. Eta urteroko moduan **sanandresak** agurtu eban azarua.



Sanandresak eguraldia lagun izan zuten eta jende asko izan zen Untzaga-ko eta Errebalgo azoketan.



Gaztañerre ospatzera irten zuten kalera AEK-ko ikasleak astelehen gauean.



Industriaren iragana ikusteko aukera bikaina eskaintzen digu Narbaiza fondoak.




Afiliatu
www.ccoo-euskadi.net


 euskadiko langile komisioak
CCOO-ek Euskadin elkarrizketa sozialaren eta negoziazio kolektiboaren alde egiten du

Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es



Jon Mikel Mujika (Hankamotxak):

"Bertsolaria izateko ezinbestekoa da euskera menperatzea, buruko txispa hori izatea eta inprobisatzeko ahalmena izatea da gakoa. Gehienak esponja modukoak dira"

Asier Lopez de Viñaspre (haur eta gazte saileko arduraduna):

"Nerabeekin erronka normalean parte-hartzea izaten da. Guk nahi duguna da eurek ulertzea Gaztelekua ez dela gurea, eurena baizik"

Pili Manterola (sukaldaria):

"Euskaldun asko dago sukaldeetan, gero kontua da bakoitzak nola maitatzen duen hizkuntza eta nola transmititzen duen. Gure kasuan zorte handia daukagu, guztiak euskaldunak gara-eta"



Pantxika astoa eta gaur egungo Olentzerok jubilazioa hartu zuten aurten egunez egin zen kalejiran.



Euskararen Eguneko egun osoko ekitaldiei globoak askatzearekin eman zitzaien amaiera.



Herritarren parte-hartzeak gora egin zuen aurten bigarren hauteskundeetan.

Abendua hasi baiño egun batzuk aurretik ixotu zittuen **Gabonetako argiak**, herriko dendarixak urte sasoi horretarako antolatutako kanpaiñaren presentaziñua amaittu eta jarraixan. **Euskeraren Egunaren** bixamonian ospatu eben **Santa Barbara** Armagintzaren Museuan eta egun hori aukeratu eben **Jose Luis Apraizen famelixian** dohaintzan emondako arma-bildumia presentatzeko eta hórretzekin preparau daberen erakusketia zabaltzeko. Ubitxa kalian zabaldu zittuan atiak **Biharrian** sormenerako gunee barrixak. Aurten 50 urte bete dittuan Durangoko Azokan betiko moduan eibartarrendako tartia egon zan. Etnografiari eskindutako **Juan San Martin Bekia** Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologuak eskuratu ebela jakin genduan. Astelena frontoian jokatutako **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako** hirugarren kanporaketan Jon Maia nagusitu zan frontoira juandako milla bat ikus-entzuleren aurrian. Urteroko moduan, **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** ikuskizun barrixa presentatzera etorri ziran: "Amalur" oinguan. Arrateko Gerraren Interpretaziño Zentruan 1936ko irailla eta 1937ko apirilla bittartian Akondian borrokatu eban bando errepublikanuaren metrailladore-habixa irudikatzen daberen **maketia** aurkeztu eben. Eibar Libre alkartekuak **Askagunia** ipiñi eben Untzagan. Gabonen aurretik, abenduaren 20xan, **urteko bigarren hauteskundeak** euki genduzen. Eta aurten lehen aldiz goizetik egindako **Olentzeroren kalejirak** jendetza batu eban. Eta urtia amaitzeko egun batzuk falta badira be, datorren urterako kontuekin hasitta gagoz, otsailian hasiko diran **39. Antzerki Jardunaldixak** presentau dittue eta.

GAUR
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
KONPONKETA
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
AUTOMATIKOAK ETA
BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea
Telefonia 943 20 62 40

carmen@egaur.com
Faxa 943 05 69 23

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen
konponketa, musika kateak,
sukaldeko menajera,
elektrodomestiko txikien piezak,
eta abar...

IFAR KALE 8
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

Eibartik irtenda eta munduari begira, badira gertaera aipagarriak azken 365 egun hauetan. Hona hemen horietako batzuk



KUBA: Aita Santuak Kuba bisitatu zuen lehen aldiz



MEXIKO: Txapo Guzman gaizkile handienak ihes egin zuen



GREZIA: Lesbosetik uhartera heldutako siriar baten erreskatea



SUDAN: Bertan jaiotako lagun kuadrila selfia egiten



FRANTZIA: Eiffel dorrea argiekien Parisen izandako atentatuen ondoren



AEB: Poliziaren aurkako protesta Laquan McDonald beltza hil eta gero



IRLANDA: Lehen gay bikotearen ezkontza legea aldatu ondoren



ERRESUMA BATUA: Sudafrikako errugbilariak Munduko Kopako partiduan



LIBERIA: Ebolaren amaiera ospatzen kaleetan



HEGOAFRIKA: Tximistak Johannesburgon



AEB: Putin eta Obanaren arteko bilera Nazio Batuen Erakundearen



PALESTINA: Gaztea israeldarren aurkako grafitia egiten



FRANTZIA: Hiru presidenteak Alpeetan abioi istripua izan zen lekuan



KENIA: Munduko azken errinozeronte zuriari etxeratzeko laguntzen



BANGLA-DESH: Umea larru ondua lantzen, inolako segurtasunik gabe



AEB: Auto baten azpitik pasatzen munduko marka duen emakumea



TXIKITTO aldizkaria koloretan.



EUSKERAZ PRIMERAN! kanpainaren aurkezpen-ekitaldia.



ZAMORA gatzizenak irabazi zuen Eibarko gatzizenik politena aukeratzeko lehiaketa.



Martxoaren 23an iritsi zen **KORRIKA** Eibarrera.



BERBALAGUNak Gernikan egon ziren maiatzean.



Beran izandako **MINTZA EGUN**era joandako eibartarrak.



Euskaltegi, ikastetxe, ...eta kitto! eta udal ordezkariak eta Berbetan-ek osatutako lan-batzordea, **BERBETAN**-en jarraipena egiteko.



EUSKARA eta **KIROLAREN** inguruan jardutuzen Maiorak, Txikonek eta Bihurrik.



Arrateko **BERTSO-AFARIA**.



Euskararen Transmisioaren **MINTEGIA**.



JUAN SAN MARTIN BEKAren XII. deialdiaren aurkezpen-ekitaldia.



BERBETAN kanpainaren aurkezpenean erabilitako kartela.



BERBETANen aurkezpen-ofiziala.



BERBETAN jaialdia irailean.



UEU-ren ikasturte berriaren aurkezpenaren ekitaldiko irudiak.



GURASOAK BERBETAN ekimenaren barruan egindako antzerki-tailerra.



"EUSKARAZ ESKATU" tabernetan.



Erosketak euskaraz egitera animatzeko LELO-LEHIAKETAko irabazleak.



HARIXA EMOTEN. Idazleekin liburuak aztertzen.

EUSKARAREN EGUNA



HANKAMOTXAK bertso-eeskolakoen saioa.



Urrezko Bikain ziurtagiria

Abenduaren 21ean Gasteizko Europa Biltzar Jauregian izandako ekitaldi ofizialean jaso zuen ...eta kitto! Euskara Elkartek Urrezko Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik.

Aurten zortzigarrenegiz egin den sari-banaketa ekitaldian 65 enpresa eta entitateri banatu zitzaizen Eusko Jaurlaritzak ematen duen Bikain ziurtagiria. Enpresaren eta kalitatearen kulturatik sortutako ziurtagiria da Bikain, Euskalitek eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanean bideratua. Ziurtagiria eskuratzeko, Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kideek egindako kanpo-ebaluazioa gainditu beharra dago: "Enpresa nahiz erakunde baten euskaraz zenbateraino eta nola egiten duen ebaluatzen da eta horren arabera kreditatu". Ebaluazio hori gaindituta, ...eta kitto! Euskara Elkartek maila goreneko aitortza, urrea jaso du. Ekitaldi berean, Eibarko Udalak zilarrezko ziurtagiria jaso zuen eta Alex Arriola eibartarrak, berriz, SPRI Eraldaketa Lehiakorretarako Sozietateak eskuratu duen Oinarrizko Bikain ziurtagiria.



Banatu dugu ...eta kitto!-ko gabonetako otarra



5.397 zenbakiaren jabeek lana izan zuten otarra autoan sartzeko. Bi familien artean banatzeak lagunduko die horrelako sariarekin.

Aurreko astean banatu genuen abenduaren 16an zozketatutako gabon-otarra ederra. Jose Antonio Pernudo eta Berna Pavo lagun ermuarrek El Corte Ingleseko bezero-arreta zerbitzuan jaso zuten otarra ...eta kitto! Euskara Elkarteko Marisol eta Mainerren eskutik. Zozketa egin baino egun batzuk lehenago erosi zituzten Jose Antonio eta Bernak gabon-otarrerako rifak, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saiora sartzeko ilaran zeudela bosna hartu eta egokituz gero erdibana egingo zuten aginduekin. Zorionak Jose Antonio eta Bernari eta eskerrik asko, beste behin ere, rifak erosi dituzuen guztioi.

Juani Carballa Bergara

*Beti lurrari itsatsita ere,
irekia ametsera.*

*Eguneroko gaia gaindituz,
prest beti hegan egitera.*

*Bizitza osoa besteak pozten,
bikain zu saiatu zera.*

*Maite zaituqu, egin bai hegan,
zoaz zoriontasunera.*



eguraldia (EUSKALMET.NET)

Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

hildakoak

- Emilio Alkorta Guenetxea. 83 urte. 2015-XII-16.
- Mari Carballo Crespo. 58 urte. 2015-XII-16.
- Maria Ibarrondo Orue. 93 urte. 2015-XII-16.
- Eusebia Goitia Kortabarria. 75 urte. 2015-XII-17.
- Juan Luis Agirre Unzeta. 79 urte. 2015-XII-18.
- Mariasun Orozko Maiztegi. 80 urte. 2015-XII-20.
- Rosario Kapanaga Totorika. 76 urte. 2015-XII-21.
- Manuela Aranberri Ercilla. 94 urte. 2015-XII-21.
- Sacramento Rodriguez Cazalilla. 82 urte. 2015-XII-22.
- Tomas Lersundi Sorazu. 94 urte. 2015-XII-23.
- Angel Osoro Elkoroiribe. 79 urte. 2015-XII-24.
- Juana Arrate Carballo Bergara. 57 urte. 2015-XII-25.
- Antonio Rodriguez Garcia. 90 urte. 2015-XII-26.
- Juan Leturiondo Alberdi. 82 urte. 2015-XII-27.

jaiotakoak

- Mikel Tueros Bengoetxea. 2015-XII-12.
- Nora Moya Gumbao. 2015-XII-19.

farmaziak

- Martitzena 29
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 30
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 31
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 1
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 2
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Domeka 3
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Astelehena 4
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Martitzena 5
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- Eguaztena 6
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Eguena 7
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Barixakua 8
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Zapatua 9
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 10
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 11
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 12
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 13
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 14
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 15
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)




JUAN LETURIONDO ALBERDI

(GAZTELU basarrikua)

"Irripar goxo bezain pikaro nortasun apartan jabe. Arrateballe ez da izango gureztat izan dana zu gabe"


MAITASUNEZ, ZURE SENIDIAK



Juani,

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen, eta inoiz itzaltzen ez delako, BETI GOGOAN IZANGO ZAITUGU.

ZURE KUADRILA



Martitzena 29

GABONETAKO PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

ARTISAU-AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00. XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

Eguaztena 30

GABONETAKO PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

ARTISAU-AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00. XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

Eguena 31

IGERIKETA

09:00. V. San Silbestre Igeriketa Txapelketa. Ipurua kiroldegian.

GABONETAKO PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

ARTISAU-AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00. XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

EIBARKO KIROL SARIAK

12:00. Sari-banaketa herriko talde eta kirolariei. ...eta kitto!-k antolatuta. Coliseo antzokian.

SAN SILBESTRE

16:30. XXV. San Silbestre Lasterketa. Aixolako urtegian.

AMAÑAKO TABERNARIAK

17:00/18:30. Umeendako animazio-ikuskizuna, Zirika Zirkus-en eskutik. Tailerra eta jolasak (elebidun). Amañako pasealeku berrian (Kutxa parean).
19:00/21:00. Sorkun eta Jon trikitalariek auzoko kaleak girotukoko dituzte. Egun osoan: ekimenarekin bat egin duten tabernetan kaba-kopa eta kiskillak 1'5 eurotan.

Zapatua 2

GABONETAKO PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

ARTISAU-AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00. XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian (beheko kantxan).

Domeka 3

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian (beheko kantxan).

Astelehena 4

GABONETAKO PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

ARTISAU-AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00. XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

ANTZERKIA

17:00. "Pintto, Pintto" umeendako antzezkiuna, Anita Maravillas-en eskutik. 5 euro. Coliseoan.

Martitzena 5

ARTISAU-AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00. XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

ERREGA-KABALGATA

16:30. Ipurua Dantza Garaikidea taldearen, Ipurua Gimnasia Erritmika taldearen eta Eibarko Balletaren erakustaldia. Ipurua kiroldegian.
19:00. Hiru Erregeen kabalgata, Cielito Musika Bandak lagunduta, Untzagatik abiatuta. Amaieran umeei harrera egingo diete, udaletxean.

Domeka 6

AMAÑAKO TABERNARIAK

Egun osoan. "Bermuteke" jardunaldia, ekimenarekin bat egin duten tabernetan artisau erara egindako bermuta dastatzeko.

SUDOKUA

	9		8				2	
3						4		5
	6			7	1			3
8	3		5					6
			9		8			
	4				6		7	8
6			1	8				9
9		8						6
	7				9		3	

2	6	4	3	9	1	8	5	7
5	3	1	7	8	4	9	2	6
7	8	9	6	2	5	3	4	1
6	4	7	5	3	9	2	1	8
9	1	2	8	4	6	7	3	5
3	5	8	1	7	2	6	9	4
1	2	3	4	6	8	5	7	9
8	9	5	2	1	7	4	6	3
4	7	6	9	5	3	1	8	2

AURREKOAREN EMAITZA

Kirol Patronatoko ordutegia.-

Ipurua, Unbe eta Orbea:
abendua 31, 9:00-13:00
urtarrilak 1, itxita.

Orbeako Spa zerbitzua.-

Gabon eskaintza berezia:
Spa sarrera bat erostean, beste bat
laguntzailearendako doan lortzeko aukera


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, OIER!, hillairen 17xan zortzi urte bete zenduazena-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, MANEX, 27xan bost urte egin zenduazena-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Amets-en partez.



Zorionak, IRATI Benito Lasa!, domekan urtetxua egin zenduan-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien eta, izarretatik, amamaren partez.



Zorionak, MALEN, bixar lau urte beteko dozuz-eta! Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Aioraren partez.



Zorionak, JON!, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat danon partez.



Aupa, LIHER, zorionak! Dagoeneko zortzi urte! Ondo ospatu famelixa guztiaren eta, batez be, zure anaixaren partez.



Zorionak, JULE Olabe-gojeaskoetxea, hillairen 31n bost urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat aitxitxa eta amamaren partez.



Ongi etorri, GORKA, hillairen 13tik gure artian zagozelako. Famelixaren eta, batez be, UNAlren partez.



Zorionak, MARTIN, MARIA eta PAULA, zuen urtebetetzietan. Muxu haundi bat MARKELen partez.



Ongi etorri hillairen 11n jaixotako URKO Lapeyra Ibarra. Etxekuen eta, batez be, zure anaixa MIKELen partez.

erakusketak

Abenduaren 22ra arte

Untzagako jubilatutako etxeko jostintza taldeko andre egindakoen erakusketa. *Untzagako jubilatutako etxean.*

Abenduaren 31ra arte

"Disainuak" Bakarne Elejalderen argazki-erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*

Argazkilaritza Ikastaroko ikasleen argazki-erakusketa. *Klub Deportiboan.*

Iñaki Campos-en "Metronomos" argazki-erakusketa. *Portalea tabernan.*

Iñaki Campos-en rock-talde argazki-erakusketa. *Ez Dok tabernan.*

Urtarrilaren 3ra arte

Alberto Ramirez eta Jon Errazu artisten erakusketa. *Topalekuan.*

Urtarrilaren 10era arte

Eibarko Klub Deportiboko argazki-taldearen erakusketa. *Portalean.*

Durangaldeko Artisten Elkartearen erakusketa. *Portalean.*

2016ko abendura arte

Jose Luis Apraizen arma-bilduma erakusketa. *Armazintzaren Museoa.*

lehiaketak

"ARATOSTEAK EIBARREN"

Kartel-Lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa.

Urtarrilaren 12ra arte, Pegoran.

ikastaroak

ARGAZKILARITZA (OINARRIZKOA)

Noiz eta non: Urtarrilaren 11, 13, 18, 20, 25

eta 27an (astelehen eta eguaztenetan),

19:30etik 21:30era, Arrate Kultur Elkartean.

Irakaslea: Jose Luis Irigoien.

Izen-ematea eta informazioa:

Arrate Kultur Elkartearen bulegoan,

943202299 telefonoan edo

arratekultu@gmail.com helbidean (25 euro

bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek).

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukaldia, bi koma eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 632-192408.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 689-571882.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Oso merke. Tel. 651-706981.
– Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-292969.
– Gizonezkoa eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko etb. Tel. 634-292969.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Tel. 629-817299.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 631-910326.
– Erizaintza tituludun emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 631-062022.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 617-169277.
– Neska eskaintzen da orduka nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 633-808931.
– Emakumea eskaintzen da dendan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendan laguntzeko. Tel. 632-426847.
– Gizona eskaintzen da edozein motatako lanetan jarduteko: lantegian, garbiketara, denda... Tel. 602-845202.

– 19 urteko neska arduratsua eskaintzen da arratsaldeetan eta asteburuetan umeak zaintzeko. Tel. 688-633677.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-101852 eta 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 632-441528 eta 634-437852.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-070225.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein garbiketara-lanetarako. Tel. 632-704433.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-852956.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Lanaldi osorako eta baita asteburuetarako ere. Orduka. Tel. 722-554395.
– Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldeetan umeak zaintzeko. Esperientzia. Haur Hezkuntza ikasten eta ingeleza hitz egiten dut. Tel. 615-741668.
– Gizarte Hezkuntza ikasi duen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu edo klaseak emateko. Tel. 630-815922.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara-lanak egiteko. Tel. 631-748977.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara-lanak egiteko. Tel. 632-454417.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506763.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara-lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 677-736060.
– Neska eskaintzen da arratsaldez edo gauaz orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Gidatzeko kametarekin. Tel. 631-343232.
– Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 653-010861.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 697-891070.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-748531.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 631-962653.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Interna. Tel. 631-062022.

4.2. Langile bila

– Pertsona behar da astero goiz batean mugikortasun arazoak dituen emakume bati enkarguak egiten laguntzeko. Ezinbestekoa da autoa izatea. Tel. 943-202030.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Katalan klaseak jasoko nituzke. Tel. 686-482364.
– Matematikako irakaslea behar da Batxilergo 1. mailako ikasle bati klaseak etxean emateko. Tel. 669-293462.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Al-berto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bizikleta eliptikoa salgai. Berria. Egoera onean. Tel. 660-511773.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– 1'50 metroko ohea salgai, gereziondoko egurrekin egindakoa. Egoera onean. 480 euro. Tel. 635-009554.
– Egongelako alfombra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 606-882043.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Pirritx eta Porrotxen ikuskizunetan hainbat gauza agertu ziren: Monster High-en boltsa bat, emakumezkoaren jertse beltza eta 2-4 urteko umearen sudadera urdin-grisa. Jabeak...eta kittol-tik pasa daitezke jasotzera. Tel. 943-200918.
– Arraten betaurrekoak topatu nituen kuadro-dun (zuri-beltzak) funda batean eta Udaltzaingoan laga ditut. Tel. 943-708424.

6.4. Bestelakoak

– Elkarre gastronomiko bateko kide izan nahiko nuke. Tel. 635-206864.
– Elkarre gastronomiko bateko kidea izatea nahiko nuke eta aukera desberdinak ikustea. Tel. 667-516350.


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

AURPEGI TRATAMENDUAK

- Lifting japoniarra
- Radiofrekuentzia
- Mantxak
- Mesoterapia birtuala

BETILE LUZAPENAK
BETILEETARAKO LIFTINGA
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA



LASER DEPILAZIOA

Hanka osoak + Izterondoak: 90€

30€

zona
bakoitza

Berria! Ipini zaitez sasoi onean astero
bakarrik 20 minutu eginez

5 saioko
bonoa
135€

10 saioko
bonoa
250€

Powered by **BODY**



**BONO
BEREZIAK**

Sasoi
honetan
opariak
egiteko
aukera
bikaina



ORBEA HAURRESKOLA

Bittor Sarasketa, 11

943 20 03 84

orbea.eibar@haurreskolak.net

Haurreskolak



Badira plaza libreak

Etorri eta galdetu!



URTE BERRI ON!!





Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

Uste Berri On!



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com